

DEBAGOIENeko III. POSTRE LEHIAKETA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapenerako Elkartek eta Arrasateko Udalak bigarrenez antolatu dute postre lehiaketa hau, Debagoieneko III Postre Lehiaketa, XXVIIgarren Jardunaldi Gastronomikoen baitan, 2017ko azaroaren 18ko Arrasateko Baserritarren azoka bereziarekin batera, bertako gastronomiaren, eta garaiko produktuen kontsumoaren sustapena egiteko helburuarekin.

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

1. Postreen ezaugarriak:

- Postreak gutxienez honako osagaietatik bi eduki beharko ditu: bertako urrak, intxaurrak, gaztainak, sagarrak, kalabaza edo/eta ezti
- Norberak egindako postreak izan behar dira.

2. Lehiaketaren kategoriak, eta bakoitzaren parte hartzeko baldintzak, izena emateko era, eta sariak:

Kategoria bi bereiziko dira:

a. 18 urtetatik gorakoak.

Parte hartzeko baldintzak:

- 18 urte edo gehiago edukitzea.

- Gozogintzan edo/eta sukaldaritzan profesionalki ari direnek ezin dute parte hartu lehiaketan.
- Lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar da, oinarri hauetan zehazten den moduan.
- Izenemate bakoitzeko postre bakarra onartuko da.

Sariak:

- Lehenengo saria: OTARRA + AFARIA + IBAI ARTEko bonoa
(Bertako produktuekin osatutako otarra + Jardunaldi gastronomikotan parte hartzen duten jatetxe batean bi pertsonentzako afaria + BONO OPARIA 100 eurokoa Ibaiarteko komertzioetan).
- Bigarrenengo saria: OTARRA + AFARIA.
(Bertako produktuekin osatutako otarra + Jardunaldi gastronomikoetan parte hartzen duten jatetxe batean bi pertsonentzako afaria)
- Hirugarren saria: OTARRA.
(Bertako produktuekin osatutako otarra)

b. 12-17 urtekoak.

Parte hartzeko baldintzak:

- Gazteek taldeka edo banaka parte hartuko dute lehiaketan.
- Lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar da, oinarri hauetan zehazten den moduan.
- Izenemate bakoitzeko postre bakarra onartuko da.
- Pertsona bakoitzak talde bakarrean parte hartu ahalko du.

Sariak:

- Hiru postre onenei sari bana emango zaie.
- Hiru postre onenen egileei Gaztetxokoetako ekintza baten doan parte hartzeko saria emango zaie.

3. Izena emateko era eta epea

Izena emateko azkenengo eguna azaroaren 13a, astelehena, izango da. Izena emateko, helbide honetara jo behar da: turismo@debagoiena.eus.

Galderak eta Informazio gehiago eskuratzeko, 943796463 telefonoan.

4. Postreak eta errezetak aurkezteko era:

- Lehiaketaren egunean, azaroaren 18an, larunbata, goizeko 11etan Arrasateko Sebero Altube Plazan aurkeztuko dira postreak. Postrearekin batera, bere errezeta eta egilearen datu pertsonalak aurkeztuko dira gutun-azal itxi batean (izena, telefonoa, helbidea eta e-mail helbidea).
- Postrearen tamaina 6-8 erraziokoa izango da.
- Postreak bertan utziko dira, lehiaketaren ostean dastatzen emateko.
- Errezetak honako datuak bilduko ditu:
 - Postrearen izena.
 - Osagaien zerrenda eta bertako produktuen jatorria
 - Elaborazio prozesuaren azalpena.

5. Epaimahaia:

Epaimahaia honela egongo da osatuta:

- Sukaldariak.
- Udaleko ordezkari bat.
- Gozogileak.

6. Postreak baloratzeko irizpideak:

Gehienez 50 puntu emango zaizkio postre bakoitzari, irizpide hauen arabera:

- Zaporea (20 punturaino)
- Aurkezteko era eta itxura (10 punturaino)
- Originaltasuna (20 punturaino)

7. Lehiaketaren zabalpena

Antolatzaileei baimentzen zaie lehiaketan parte hartzen duten pertsonen izenak eta aurkezten dituzten errezetak argitaratzeko, ekimenaren sustapena egiteko.